




Gurasoen eskuliburua



2020-2021



Hezkuntza proiektua

XEDEA: Gure izatearen arrazoa: ikastetxea zertarako dagoen adierazten du.

Erreniega ikastetxearen xedea, **euskara eta euskal kultura** ardatza izanik, gaur egungo gizartean haur **guztiei** beren **garapen integrala** ahalbidetzea da, giro positiboan **eskola eta familiak elkarlanean**.

IKUSPEGIA: Jomuga edo nahia adierazten du, ikastetxearen etorkizuneko irudi asmoa.

- Eskola **inklusiboa** izatea, hau da, ikasle bakoitzaren **gaitasunen garapen** handiena lortzen duena .
- Ikasle eleanitzak izan daitezen, **euskara, gaztelania eta ingelesan konpetentziak** garatzen dituen.
- **Haur taldea eta familiekin elkarlanean** ari den eskola.
- **Metodologia eta teknologia berrietan** oinarritzen den hezkuntza eskaintzen duena.
- **Irakasleen prestakuntza eta berrikuntza** bultzatzen dituen eskola.
- **Gizartearen espektatibei eta hezkuntzaren joerei** erantzuten dien eskola.
- **Etengabeko hobekuntza** ahalbidetzen duen eskola, sormena erabiliz ikuspegi berriak sortzeko edo aldatzeko gai dena.

BALIOAK: Eskola komunitatea gidatzen duten printzipioak dira.

- Jokabide **parte-hartzailea eta elkarlanekoa**.
- **Sentikortasuna** eta **elkartasuna** berdinen arteko eta ingurune sozialeko kideen arteko harremanak orekatuak ahalbidetuz.
- **Ekimena eta sormena** ikuspegi berriak sortzeko eta arazoak gainditzeko.
- **Berdintasuna**, guztiak ezberdinak garela kontuan hartuta.
- **Lan-talde**en eraginkortasuna etengabeko hobekuntza bultzatuz.

Covid-19 dela-eta 2020-2021 ikasturtean ikastetxeak prestatutako kontingentzia planak, Nafar Gobernuako planean oinarrituz egindakoa, garrantzi eta eragin handia izango du eguneroko antolamenduan. Horregatik, plan hau dokumentu honetako hainbat ataletan aipatuko dugu.

Eskola egutegia

Oharrak / Avisos:

1. Hasiera: **IRAILAK 7** / Bukaera: **EKAINAK 22**.
2. **Zubiak**: abenduak 4 eta abenduak 7.
3. **Iraileko** ordutegia: goizez, **9:00-13:00**.
4. **Urritik** aurrerako ordutegia (ekaina barne): goizez, **9:00-14:00**.

IRAILA septiembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA octubre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA noviembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA diciembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILA enero

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

OTSAILA febrero

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA marzo

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA abril

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA mayo

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA junio

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Eskola ordutegia

IRAILEAN:

SARRERA / ENTRADA		IRTEERA / SALIDA	
9:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5	13:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5
9:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6	13:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6
ordutegi propioa	HH1	ordutegi propioa	HH1

URRITIK AURRERA:

GOIZEKO SARRERA	
9:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5
9:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6
9:10	HH1

EGUERDIKO IRTEERA	
13:50	HH1
14:00	HH2, LH2, LH3 eta LH5
14:05	HH3, LH1, LH4 eta LH6

Puntualtasuna funtsezkoa da, guztion onerako.

Sarrera-irteeretako araudia

Zuzen jokatzeko badugu eta arau hauek betetzen baditugu, gerta daitezkeen egoera arriskutsuak saihestuko ditugu:

1. **Eskola eremuko sarrera-irteerak:** Kontingentzia planeko jarraibideak ikusi.
2. **Ikasleriaren sarrera eskola barrura:** Kontingentzia planeko jarraibideak ikusi.
3. **Idazkaritzan aferak eta sarrera-irteera ordutegitik kanpo ikasleak bilatzera edo ekartzera:** Kontingentzia planeko jarraibideak ikusi.
4. **Jantoki orduan ikasleen bila bazatozte:** jantoki zerbitzuko atalean ikusi.
5. **Garraio zerbitzuaren funtzionamendu egokia** bermatzeko, oso garrantzitsua da autobusen geltokia errespetatzea. Zuen seme-alaben bila kotxez etortzekotan **biribilgunean ez aparkatzea** arren, eskatzen dizuegu.
6. Biribilguneko ate nagusia **ikasle garraiatuek bakarrik** erabiliko dute eskolako irteera orduetan, ikasle garraiatu guztiak autobusetan igotzen diren bitartean.

Antolamendua

ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaria	Maite Markotegi
Ikasketaburua	Amai Marcilla
Idazkaria	Amaia Espinosa

Haur Hezkuntza	A	B	C
3 urte	Uxue Buñuales	Haizea Perez	Uxue Altuna
4 urte	Saioa Oiz	Nerea Indave	Naroa Perez
5 urte	Arantxa Tamayo	Sabiñe Añorga	Mertxe Ansorena

Haur Hezkuntzako laguntza: Miriam Garcia, Nerea Giacchi eta Amai Marcilla.

Lehen Hezkuntza	A	B
1º	Idoia Ilzarbe	Saioa Lekunberri
2º	Rakel Mendioroz	Isabel Asiain
3º	Ane Arregui	Oihane Azkona
4º	Rakel Ortiz	Idoia Irurtzun
5º	Leonor Calvo	Idoia Imaz
6º	Iñaki Vazquez	Leire Esparza

Lehen Hezkuntzako laguntza: Maitane Aierdi eta Itziar Saiz.

IRAKASLE ESPEZIALISTAK

Ingelesa: Arantza Delgado, Javier Arrizabalaga, Josune Mariezcurrena, Nerea Giacchi eta Edurne Galarza

Musika: Ixone Antia

Gorputz Heziketa: Iban Aguerri

Erljio: Olatz Urkiri

Logopedia: Oihane Rubio

Pedagogia Terapeutikoa: Maider Beitia eta Jaione Martinez de Irujo

Orientatzaileak: Marian Etxague eta Iratxe Etxabe

IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK

Atezainak: Gorka Olleta eta Esther Rodriguez

Administraria: Marta Hekneby

Zaintzailea: Armando Zudaire

GURASO ELKARTEA

“HOTS GURASOAK”

Harremanak

Aurten, egoera berezia dela eta, harreman guztiak telefonoz edo posta elektronikoen bitartez egitea hobesten da.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:30era

HITZORDUA ESKATZEKO

- **TUTOREAREKIN**
 - Ikasleen bitartez tutoreari **ohar** bat bidali.
 - 3., 4., 5. eta 6. mailakoek ikasleen **agendaren** bitartez eginen dute.
- **ESPEZIALISTEKIN**
 - Tutorearen bitartez.
- **ZUZENDARITZAKO EKIN**
 - Idazkaritzan ordua eskatu.

IKE – IRADOKIZUN, KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK: ipzizur@educacion.navarra.es helbide elektronikora mezu bat bidaliz edota eskolako web orrialdean “*Hobetzen lagundu*” atala erabiliz bidera ditzakezue. Edozein modutan, nahitaezkoa da IKEa egiten duenaren izena jartzea.

Erantzuna ahalik eta lasterren emango da.

MEZUAK: ikastetxetik banatuko diren oharrik posta elektronikoen bidez helaraziko dizkizuegu. Ikastetxeko funtzionamenduari buruz informazio gehiago izateko ikastetxeko web orrialdea kontsulta dezakezue.

GURASO ELKARTEA:



www.hotsgurasoak.com
apyma@hotsgurasoak.com

Bazkide kuota: 20€/urtean familiako.

Hots Gurasoak guraso elkarteak eskolako zenbait zerbitzu antolatzen ditu, besteak beste, Ardoitik joan-etortzeko garraioa eta goiz goizeko harrera zerbitzua. Gainera, eskolako zenbait jarduera antolatzen ditu eta beste hainbatetan laguntzen du (esate baterako eskolako jaiak, Korrika, gaztain festa, Olentzero, inauteriak, futboltxo txapelketa, etab.), eta Eskola Kontseiluan duen ordezkariaren bitartez eskolako erabakietan parte hartzen du.

Bizikidetza

Proiektu hau eskolako partaide guztien harremanak hobetzeko eta eskolan giro ona lortzeko asmoz garatu da.

Bizikidetza planaren barruan jarduera hauek egiten dira:

- Tutoretza plana. Ikasturte honetan COVID-19 egoera dela eta, momentuz bertan behera gelditzen da.
- Familia eta ikasleen harrera plana.
- Guraso ordezkariak.
- SKOLAE berdintasuna eta hezkidetza programa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztientzat.
- Osasunaren aldeko proiektua Zizurko Osasun Etxea, Hots Gurasoak eta eskolaren artean garatua.

Guraso ordezkariak

Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren barruan, prebentzio mailan garatutako Tutoretza Planaren arlo batek, familiak eta ikastetxearen arteko harremanak sendotzea du helburu. Gurasoen ordezkariaren figurak helburu hau betetzen lagunduko du.

Aukeraketa: gelako 1. guraso bileran.

EGINKIZUNAK

- Irakasle, familiak, guraso elkarte eta zuzendaritza taldearen arteko lotura.
- Gela bakoitzeko gurasoen partaidetza ikastetxeko ekintzetan koordinatzea.
- Guraso Elkarateak bere identitatea mantentzen du baita ekintza batzuen ardura eta antolamendua ere.
- Bi motatako eginkizunak izango dira:
 - o Gelakoak: gelako aferak (argazkiak, erosketak..), gelako ardurak (taldeari dagozkionak, besterik ez), gelako jarduerak.
 - o Eskolakoak: festak, matrikula kanpaina, futbito eta pilota txapelketa...
- Guraso elkarte eta zuzendaritza taldearekin bileretan parte hartzea.

Hots Gurasoak elkarateak, eskolarekin elkarlanean:

Eskola Kontseilua

Eskolaz kanpoko ekintzak (indarrean jarri gabe COVID-19 dela eta)

Guraso eskola

Auzolan

Festak: Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, Korrika, Hots Gurasoak ikasturte bukaerako jaia (larunbata)

EUSKARAZ Gozatu, Berritzen eta Jolasten "XAMARIKOREN JOLASAK"

Zerbitzuak

GARRAIOA

Garraio zerbitzua “Camino de Santiago” eta “Catalina de Foix” ikastetxeekin batera antolatuta dago. Bi garraio mota daude:

- ★ Batetik, **eskualdeko herrietatik datozen ikasleek** erabiltzen dutena, Hezkuntza Departamentuak ordaindutakoa. Erreniegako 104 ikaslek erabiltzen dute.
- ★ Bestetik, **Zizur Nagusiko Ardoi eta Alde Zaharretik datozen ikasleek** erabiltzen dutena, hiru eskoletako guraso elkarteek antolatutakoa eta familia erabiltzaileek ordaindu beharrekoa. Aurten Erreniegako 58 ikaslek erabiltzen dute garraio hau.

Goizeko zerbitzu honen irakasle arduradunak hauek dira: Jabier Arrizabalaga, Leonor Calvo, Leire Esparza eta Idoia Irurtzun.

Eguerdiko Ardoiko garraio zerbitzuaren irakasle arduradunak dira: Miriam Garcia, Idoia Imaz eta Ixone Antia.

Bazkaldu ondorengo zerbitzua, eskolako irakasle guztien ardurapean egongo da, eta honetarako txandak antolatu dira.

● Garraio zerbitzuaren erabilera:

- > Kontingentzia planean dauden jarraibideak ikusi.
- > Autobusen geltokia eta ordutegia ezagutu ondoren, garrantzitsua da geltokian garaiz egotea, bai haurrak eramateko garaian baita jasotzeko garaian ere.
- > Ikasturte honetan ezarritako jardunaldi jarraiaren ondorioz, urriaren 1etik aurrera, **eskualdeko garraio zerbitzua 15:45ean** izango da, jantokia ondoren; **Ardoiko garraioa**, aldiz, **14:00etan eta 15:45ean izango da**.
- > Autobus-zaintzaileak eserleku bat finkatuko dio garraiatutako haur bakoitzari adina, herria... irizpideen arabera.
- > Egun zehatz batean edo batzuetan ez badu autobusa erabili behar, zaintzaileari eta tutoreari jakinaraziko diezue zuek idatzitako ohartxo baten bidez.
- > Haurren bila etortzen bazarete, ate nagusian (errotondan) jasoko dituzue. Autobuseraino laguntzen dion irakasleari eta autobuseko zaintzaileari jakinaraziko diezue. Salbuespena: **Ardoiko garraioa goizez bakarrik erabiltzeko apuntatuta dauden ikasleak patiotik aterako dira, eta bertatik jasoko dituzue.**
- > Irakasle arduradunen lana ez oztopatzearren, zuen seme-alabak hartu ondoren errotondan ez gelditzea erregutzen dizuegu.
- > Errotondan autoa uztea debekaturik dago. Autobusek lekua behar dute haurrak arriskurik gabe barrura sar daitezen.
- > Haur Hezkuntzako ikaslegoak iraila eta urria bitartean ikastetxean eskuratutako identifikatzeko txartela eramango du.

GOIZ GOIZEKO HARRERA

Aurtengo egoera dela eta, zerbitzu hau mantentzen saiatuko gara, eta lortu bada ere, egoeraren arabera bertan behera geldi daiteke.

“Hots Gurasoak” Elkarteak ikastetxeko familiei goiz goizeko harrera zerbitzua eskaintzen die. Haurrak Jangarria-Ausolan enpresako Amaia Ibañez eta Uxo Bakedano zaindarien ardurapean egoten dira.

Lekua: Kontingentzia planari jarraituz, jantokian egingo da.

Ordutegia: 7:30tik 9:00etara.

Zerbitzu honen erabilerak Guraso Elkartean bazkidezea ekartzen du.

Kuotak: momentu honetan 47€ hilabete eta ikasleko. Prezio hau ez da behin betikoa izanen, zerbitzuaren egoeraren araberean menpe egongo baita (alten eta bajen arabera).

Kuota soziala: arazo ekonomikoak dituzten familientzat udaletxeko Gizarte Zerbitzuaren txostena eskuratuta.

Noizbehinkako erabilera: ezingo da modu honetan erabili.

Altak edo **bajak** jakinarazteko eta **informazio gehiago** eskuratzeko:

www.hotsgurasoak.com/conócenos/acogidatemprana

JANTOKIA

Enpresa hornitzailea: Ausolan-Jangarria.

Enpresako arduraduna: Jone Lazkano.

Irakasle arduraduna: Arantza Delgado.

Administraria: Marta Hekneby.

COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz:

- **Ezin izango da noizbehinkako bazalkidea izan** (egun solteak). Bakarrik bazalkide finkoak onartuko dira.
- **Epez kanpoko altak: eskaera 7 egun lehenago** egin beharko da, gutxienez. Jantokiko arduradunek aukerak ikusiko dituzte eta **familiari jakinaraziko diote plaza eskuratu ahal duen eta noiztik**. Aforoak ez badu aukerarik ematen, plazarik gabe geldi daiteke.
- Segurtasun neurriak: bere gelakideekin eseriko dira, eserleku finkoetan, sarrera eta irteerak orden zehatz batean egingo dira, musukoaren erabilera...

Txandak:

1. LH 4. maila arte: 14:00etan edo 14:05ean.
2. LH 5. eta LH 6. mailak: 14:40 inguru.

Ikasleak jasotzeko ordutegiak:

HH 1 (3 urte): lo kuluxka aurretik 14:15ean; ondoren, 15:30etik 15:45era.

HH 2. mailatik LH 4. mailara: 15:00etatik 15:45era.

LH 5. eta 6. mailak: 15:30etik 15:45era.

Ikasleak jasotzeko atea: hesiko ate txikitik (fruta-dendaren parean dagoena); mugak kendu ditugu zuen seme-alaba dagoen taldera pixka bat hurbildu ahal izateko, ikasleak abisatzeko, baina eskatzen dizuegu haurrekin ez nahastea eta patioan beharrezko denbora bakarrik egotea. Zaintzailea abisatu behar duzue haurra eramaten duzuela.

***ADI: GARRAIATUAK** diren haurren bila etorri nahi baduzue, patiotik jasotzeko 15:35 baino lehen etorri behar zarete; ordu horretatik aurrera patioan gelditzen diren ikasle garraiatu guztiak ate nagusiko errotondara joango dira, eta bertatik hartuko dituzue.

HH 1. mailako (3 urte) ikasle garraiatu guztiak lo kuluxkatik zuzenean ate nagusiko errotondara joango dira eta bertatik jasoko dituzue horrela nahi izanez gero. Ikasle hauen jardueren eta ordutegiaren berezitasunengatik hartzen dugu erabaki hau, ikasleak hobeto artatzearen.

Arau hauek betetzea nahi dugu, zeren bestela zaila egiten zaigu ikasleak ongi gainbegiratzea. Haurrak jasotzerakoan irakasle arduraduna eta autobuseko zaintzailea abisatu behar duzue.

Ez ezazue haurrik eraman zaintzaileak edo garraio arduradunak abisatu gabe.

Ikasleak **etxera bakarrik** joateko gurasoen edo tutorearen **baimena** izan beharko dute (izen-ematearekin batera adierazi beharko duzue). Aurrerago bakarrik joatea erabakitzen baduzue, idazkaritzan abisua eman email baten bitartez guri jakinarazteko baimena duela.

Gurasoak edo tutorea ez den norbait bila etortzeko, pertsona horren izena jakinarazi behar diguzue (izen-ematearekin batera adierazi beharko duzue). Aurrerago aldaketak egin nahi badituzue, idazkaritzan abisua eman email baten bitartez, guk aldaketak jakinarazteko jantokiko arduradunei.

Jantokiko kuotak: aurten Hezkuntza Departamentuak ezarritako baldintzak betetzearren (ratioak eta garbiketa) bestetan baino zaintzaile gehiago kontratatu behar izan ditugu, eta horrek kuotak igo ditu. Jantokia antolatu dugunean, gure asmoa izan da haurrak ahalik eta hoberen egotea, bai eta baimendutako gehieneko ordutegia betetzea ere, zuen familia eta lana bateragarri egin ahal izateko, betiere zerbitzuaren eta prezioaren arteko oreka bilatu nahian. Eskola Kontseiluan adostuko ditugu behin betiko kuotak.

3 kuota mota egongo dira, eta hona hemen behin-behineko zenbatekoak:

- Dirulaguntzarik gabekoa: 98€/hil.
- Dirulaguntzarekin (eskualdeko garraiatuak): 31€/hil.
- Bestelako dirulaguntza: Zizur Nagusiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan eskatu.

Asteko egun finko batean (edo gehiagotan) gelditzen ez direnei, izen-ematean horrela adierazi dutenei alegia, egun horri (horiei) dagokion janariaren deskontua egingo zaie.

Eskualdeko garraioa erabiltzen duten ikasleek (Hezkuntza Departamentuak ordaindutako garraioa) egun guztiak diruz lagunduta izango dituzte urriaren 1etik ekainaren 22ra arte. Etxera bueltatzeko garraioa 15:45ean hasiko da.

Ardoiko eta Alde Zaharreko garraioa erabiltzen duten ikasleek (familiek ordaindutako garraioa) ez dute dirulaguntzarik jantokirako, Hezkuntza Departamentuak ez baititu garraiatutzat hartzen. Ikasle hauek etxera autobusez bueltatzeko bi ordutegi izango dituzte: 14:00etan eta 15:45ean.

Diru-itzulketak: janariari dagokion diru kopurua itzuliko zaizue, honakoetan:

- **Kanpaldiak eta txangoak.** Itzulketak ikasturteko azken ordainketan egingo dira. Ez duzue horietaz abisatu behar, guk informazio hori aldez aurretik baitugu.
- **Gela bat konfinatuta dagoen egunengatik.** Itzulketak konfinamendua gertatu den hilabetean egingo da. Konfinamendu ofiziala iraun bitartean ez duzue abisatu behar itzulketak izateko.
- **Aldez aurretik jakinarazitako 5 egun lektibo jarraian hutsegiten** dutenean. Idazkaritzan abisatu behar da beranduen egun bereko 9:30 baino lehen (informazioa lehenbailehen izateak asko laguntzen gaitu).

Erreziboak:

- **Hilabetea bukatutakoan** helbideratuko dira.
- **Errezibo itzuliak edo ordaindu gabeak** dituzten familiek **jantokian hasi baino lehen ordaindu beharko** dute kuota, hilabete hori jantokia erabiltzeko eskubidea izateko.
- Erreziboak behin eta berriro itzultzen badira edo zorrak pilatzen badira, ikasleari jantokian baja eman ahal zaio.

Jantokiarekin zerikusia duen **EDOZEIN ALDAKETA** (altak, bajak, dietak, hutsegiteak...) **IDAZKARITZAN** jakinarazi behar dira. Gainera, komenigarria da tutoreak ere ohar baten bidez abisatzea.

Jarraipena: zaintzaileekin hitz egin dezakezue zuen seme-alaben bila etortzen zaretenean, eta bestela, idazkaritzan eska dezakezue telefonoz deitzeko.

Jantokiko arauak:

Ikasle batek jantokiko langileen eta arduradunen jarraibideei kasurik egiten ez badie, edo haiekiko edo bere ikaskideekiko errespetu falta adierazten badu, ikaslearekin aztertuko da gertatutakoa eta landuko dira jarrera bideratzeko arauak eta helburuak.

Egun batzuen buruan ez badu jarrera aldatzen, familiarekin harremanetan jarriko gara, gertatutakoaren berri emateko eta harekin adostuko da hartuko diren neurriak.

Kasu larrietan edo familiak ez badu laguntzen jarrera aldatetan, ikaslea jantokitik kanporatu ahal izango da, epe labur do luzerako.

Hutsegiteak honako hauek dira, besteak beste:

-Jantokiko langileekiko edo ikaskideekiko begirune falta.

-Bere osotasun fisikoa nahiz beste ikasleena arriskuan jar dezakeen edozein portaera desegoki, bazkalorduan edo aisialdian.

-Oinarrizko zenbait arau ez betetzea, besteak beste:

- Doinu egokian hitz egitea (ibilbidean, jantokian: oihurik ez, abestirik ez).
- Pasabideetan eta jantokian korrika ez egitea.
- Baimenik gabe alde ez egitea.
- Beste ikasleekin ez borrokatzea, dela jantokian, dela aisialdian.
- Janaria ez jaurtitzea, janariarekin ez jolastea, nahita zikintzea edo mahai tresnak hondatzea.

Testu liburuen doakotasun programa

2020-2021 ikasturtean Lehen Hezkuntzako maila guztiak programa barruan daude.

Programa honen ezaugarriak ondorengo hauek dira:

- Mailegu sistema bat da, familiak ez dira liburuen jabeak. Liburu hauek ikastetxearenak dira.
- Diru kopuru hau SUNTSIKORRA EZ DEN materiala erosteko da, hots, material iraunkorra erosteko, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan ezik. Beraz, LHko 3. mailatik aurrera lan koadernoak eta ikasleek bertan idatzi behar dituzten liburuak programa honetatik kanpo geldituko dira. Guztia erosteko diru kopurua nahikoa izango ez balitz, familiei jakinarazi eta helbideratuko zaie.
- Ikasturtearen zehar ikasle bakoitzak liburu berdinak erabiliko ditu eta hauek kode baten bitartez eta ikaslearen izena duen pegatina batekin identifikatuak egongo dira.
- Liburu hauetan ezin da ez idatzi ezta azpimarratu ere. Ikasle bakoitza erabiltzen dituen liburuen arduraduna izango da eta galdu edo hondatuko balitu, ikasle horren familiak ordaindu beharko ditu liburu berriak.
- Liburua hondatuz gero eta ikaslearen errua izango ez balitz, ardura Hezkuntza Departamentuak hartuko du.
- **Ikasturte bukaeran liburu guztiak ikastetxeari itzuli beharko zaizkio.**

Erreniega ikastetxeko proiektuak

Gure ikastetxean aspalditik apustua egin dugu berrikuntza pedagogikoaren alde eta badaramagu denbora luzea proiektuak eta planak osatzen eta garatzen. Hona hemen eskolan ditugunak:

AHOZKOTASUNA LANTZEKO ETA HOBETZEKO PLANA

Euskara gure ikastetxearen hizkuntza izanik, gelako esparrutik ateratzea eta harremanetarako hizkuntza bihurtzea helburutzat hartzen dugu. Horretarako gelako programazioan ahozkotasuna txertatzeaz gain zenbait proiektu garatzen ditugu.

➤ Xamarikoren jolasak

Proposamen honen helburua euskararen erabilera indartzea da. Programa honek begiraleak jolastokian ikasleentzako jolasak eta tailerrak antolatzen ditu, hizkuntza erregistro ez formalak erabiliz. Zuek, guraso zareten aldetik, euskararekiko duzuen jarrerak garrantzi handia du zuen seme-alabek euskararekiko ahal den motibazio positiboena lor dezaten.

➤ Bertsolaritza

Irailtik otsailera, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek aukera dute astean behin, ostegunetan hain zuzen ere, ekintza honetan parte hartzeko. Saio hau, hizkuntza arloaren saio kopuruan txertatzen da eta urritik maiatza bitartean aurrera eramaten da.

Bertsolaritzako irakaslearen eskutik, gure ikasleek aukera dute euskararen kultur ondare bat ezagutzeko: bertsolari historikoak, bertso ezagunak, doinuak. Honetarako, Nafarroako Bertsolaritza Elkarteak sortutako liburua erabiltzen dute. Otsailatik aurrera, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak izango dira bertsolaritza saioak jasoko dituztenak.

➤ Irakurketa plana

Aurtengo egoera berezia dela eta ikasleek ezin izango dute eskolako liburutegia erabili. Hau dela eta, tutore bakoitzak liburu sorta gelara eramango du bertan mailegu zerbitzua kudeatu ahal izateko, baita erabili ahal izateko ere.

Ikasturte honetan berrikuntza gisa, ikastetxean tertulia dialogikoak egiten hasiko gara.

Plan honen barruan beste zenbait jarduera osagarri sartu ahalko dira Covid egoeraren arabera.

METODOLOGIA BERRIAK

➤ Proeducar-Hezigarri

Aurten Erreniega ikastetxea PROEDUCAR-HEZIGARRI sarean satu da. PROEDUCAR-HEZIGARRI Navarra Berrikuntzako Hezkuntza Programa bat da, Europako Gizarte Funtsak (EGF) finantzatua eta Hezkuntza Saileko Gizarteratze, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak garatua.

Helburu orokorra porrotaren eta eskola goiz uztearen aurka borrokatzea da, bai eta ikasle guztien hezkuntza-inklusioa eta eskola-arrakasta bultzatzea ere, hobekuntza-proiektu bat ezarriz eta gauzatzuz.

Hori guztia lortzeko, PROEDUCAR-HEZIGARRI Navarra programak ikastetxeei proposatzen die eraldaketa-proiektu global batean parte hartzea, hiru ikasturteko kontratu baten bidez, ikastetxearen eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren artean. Kontratu horretan, ikastetxe bakoitzak bere lan- eta eraldaketa-ibilbidea erabakiko du, bere ingurunea, abiapuntua eta amestutako etorkizuna kontuan hartuta.

➤ Proiektu lan egiten

Irakasle eta ikasleen papera, konpetentzien garapena eta gelako bizikidetzaren hobekuntza dira metodologia honen oinarriak.

Testu liburuak utziz eta tutorearen papera laguntzaile edo bitartekariarena izanik besteak beste, interesa duten gai, egoera edo proposamenek, eginaz ikastera eramango gaituen ikaskuntza/irakaskuntza prozesuan oinarritzearen hipotesian datza.

Aurreko ikasturtean Erreniegako zenbait irakaslek proiektuetan oinarritutako metodologian sakontzen jarraitu zuen, proiektuen bitartez lan egiten ikasteko espezialisten prestakuntza eta laguntza jasoz. Ikaskuntza honetatik abiatuta, ikasturte honetan lan egiten jarraituko dugu modu honetan.

TEKNOLOGIA BERRIAK

➤ Arbel digitalak eta ordenagailuak

Lehen Hezkuntzako ikasgela guztiak (tutoretza gelak eta Ingeles eta Erlijioeko espezialitateak) arbel digitalekin hornituta daude. Gela guztietan ordenagailu bana dago INTERNETen konektatzeko aukera dutelarik.

Informatika gelan 24 ordenagailu daude.

Geletara eramateko ordenagailu eramangarri eta proiektorea daukagu.

Liburutegian ordenagailu bat eta proiektore finko bat daude.

Aipatzekoa da, Auzolanaren bidez lortu genuen megafonia sistema. Gaur egun, sarrera-irteeretan erabiltzen dugu, baita abisu bereziak emateko ere. Eguneroko sarrera-irteera horietarako, ikasleak beraiek dira abestiak aukeratzen dituztenak.

➤ Blogak

Blogak hezkuntza baliabide bezala eta familiekiko komunikazio tresna bezala erabiltzen jarraituko dugu.

Teknologia berrien eta blogen erabilera bultzatu eta honetan laguntzeko ardura Amaia Espinosak izango du.

ESKI KANPAINA

Aurtengo egoera dela eta, Ipar Eskiko Eskolak aztertzen ari da kanpaina hau aurrerea nola eraman. Oraindik ez dakigu ezer honi buruz, baina zeozer jakin bezain laster, informazioa helaraziko dizuegu.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak eta Ipar Eskiko Eskolak antolatzen duten kanpaina honetan 6. mailako ikasleek parte hartzen dute. Ikasleak eskiatzera joaten dira aste oso bat (igandetik ostiralera) tutoreekin eta Gorputz Heziketako irakaslearekin. Aste horretan, goizez Ipar-eskia ikasten dute eta arratsaldean jarduera desberdinak egiteko aukera dute. Kirol mota bat ikasteaz gain, jarduera honen helburu dira elkarbizitza bultzatzea, Nafarroako eskualde bat ezagutzea eta euskararen erabilpena indartzea, besteak beste.

Euskara Erreniegan

Gure ikastetxean euskaraz irakasteaz gain, euskal kulturaren zabaltzaileak izan behar gara. Honek esan nahi du euskal ohiturak, tradizioak, kanta, festak eta abar luze bat gure ikasleei transmititzen dizkiegula, eta horiekin batera gure kulturarekiko maitasuna eta begirunea. Baina jakin badakigu ez dela aski eskolan egiten dugun ahalegin guztiarekin eta horregatik garrantzitsua da familian eta gizartean ere bide honetan ahalegintzea.

Egia da, euskara berreskuratzeko hezkuntza dela baliabide garrantzitsuena baina familiek eta gizarteak ere zeresan handia daukate haurren euskalduntze prozesuan.

Hizkuntzaren transmisioa familiaren bidez

Familiaren jarrera baikorrak garrantzi handia du haurraren. Beraz, gurasoek euskara erabiltzeko aukera zabaldu behar diete haurrei.

Zer egin dezakete familiek?

- Haurrek jakin behar dute eskolan erabiltzen duten hizkuntza familiak ere errespetatu eta maite duela.

- Gurasoek beren seme-alabak animatu eta bultzatu behar dituzte eskola barruan eta eskolatik kanpo ere euskara erabil dezaten elkarren arteko harremanetan. Senideen edo lagunen artean euskaraz hitz egitea lortzen dutenek, hizkuntzaren kalitatea eta erraztasuna hobetzen dute.
- Behin eta berriro euskaraz hitz egin behar dutela errepikatzea ez da nahikoa, zerbait gehiago eskaini behar zaie:
 - Oinarrizko hiztegia erabiliz: aita, ama, kaixo, agur, polita...
 - Euskaraz antolatutako ekitaldietara seme-alabak eramanez: antzerkiak, zinemak, kirol ekintzak, Nafarroa oinez, Sortzen-en festa...
 - Seme-alabek lortutako emaitzak gorai patuz eta egindako lanari arreta jarritz.
 - Eskolari, euskarari, irakasleei eta gelako lanari buruz iritzi baikorrak emanez.
 - Geletan antolatzen diren ekintzetan eta irteeretan ikasleen partaidetza posible eginez.
 - Eskolak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartuz.
 - Seme-alabentzat euskaraz ikastea aukeratu duzueenez, etxean euskarazko liburuak edukitzea garrantzitsua da.

Haur erdaldunen euskalduntzea

Gure eskolak haur erdaldunak euskalduntzeko murgiltze sistema erabiltzen du, hau da, eskolan sartzen diren unetik euskara izango da komunikatzeko hizkuntza, eta gure helburua izango da euskara erabiltzea bai gela barruan irakasleekin, bai haien arteko harremanetarako. Horretarako, eskolak garatuko ditu ikasketak burutzeko haurrengan beharrezkoak diren gaitasunak eta ahalmenak, eta oso garrantzitsuak direnez ikasleek euskararekiko dituzten jarrera eta jokaera baikorrak, eskolak jardura desberdinak antolatzen ohi ditu horretan laguntzeko.

Euskara gizartean

Ezin gara konformatu gure seme-alabak euskaraz eskolatzearekin, euskaraz murgiltzeko esparrua zabaldu behar diegu, eta horretarako gizarteak eskaintzen dituen aukera guztiez baliatu behar gara:

- Komunikabideak euskaraz ikustea eta entzutea; hau da, etxeetan euskararen presentzia edukitzea.
- Guraso Elkarteak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izaten dira, ikasleek ordutegitik kanpo ere euskaraz jarrai dezaten. Ikasturte honetan, egoera dela eta, momentuz ezin izango dira antolatu.
- Zizur Nagusiko Udalak haurrentzat ekintza ugari antolatzen ditu euskaraz.
- Ludoteka ere aukera ona da haurrek elkarrekin jolastuz euskara erabil dezaten.
- Musika Eskolan ere ikasketak euskaraz egiteko aukera zabaltzen ari da.
- Udalak antolatzen dituen kirol ekintzetan ere, pilota, saskibaloia... eskatzen den neurrian ahalegintzen dira euskaraz eskaintzen.
- Zenbat eta lehenago hasi hizkuntza batekin gero eta hobeto ikasiko dute haurrek bigarren hizkuntza hori.

OHARRAK

- Eskolako logoarekin **kamisetak** 14 eurotan (4 urtetik 14 urte bitarteko neurriak) eta **biserak** 6 eurotan (haur eta heldu neurriak) idazkaritzan eros ditzakezue.
- Galdutako arropa eta zenbait gauza atezaintzan biltzen da. Atezaintzaren parean dagoen eskegitokian uzten da, eta egun batzuetan jasotzen ez bada, kendu egiten da. **Arropa izenarekin markatzea** komenigarria da.